

VII. Materialak

**Tx. IBAÑEZ
X. PEÑALVER**

Aurkitutako materialen artean, zeramika edo metal-objetuen eza adierazi behar da dagoen industria harrizkoa izanez.

Harri-industria goreneko azaletik anderakuntza-zoruaren agerketaraino aurkitu da, bai barne-egituretan nahiz harrespil, zista edo tumuluetan, bai monumentuen tarteko uneetan. Baina, material-kontzentrazio haundiago bat tumuluaren zonaldean eta harrespil 1.aren barne eta kanpoaldeetan nabarmendu da.

Harri-industriarako erabilitako lehengai bakarra suharria dugu, nahiz honek ezaugarri ezberdinak izan kasu bakoitzean.

Aztarnategia kokatzen den inguruan suharri presentziaren konstantziarik ez dago.

Harri-industria

Printza eta ijelki bakunak.

Inducketan zehar ukigabeko 116 printza bakun eta 2 ijelkien zati medialak aurkitu dira, azken hauen neurriak honako hauek direlarik: 29-10, 5-4,5 eta 9-13,5-4, hurrenez hurren (Irud. 7.1 zk. 1 eta 2).

Ukipen gutxiko aleak.

Multzo honetan printza edo ijelkien ertzetako batean «erabil-ukierak» dituen printza-sail edo ijelki-zatiak barnesartzen ditugu (11 printza eta 4 ijelki-zati).

Dekortikapen-printza: ukiera laua alderantzikatua ezkerreko ertzean, aurkakoa bakuna, alderantzikatua, partezkoa. (Neurriak: 20-23,5-6) (Irud. 7.1. zk. 3).

Printza: ukiera bakuna eskuineko alboko ertzean eta urruneko haustura. (Neurriak: 11-11,5-3,5) (Irud. 7.1. zk. 4).

Printza: ukiera laua, alderantzikatua bi aldeetan (Neurriak: 22,5-19,5-10) (Irud. 7.1. zk. 5).

Printza-zatia: ukiera bakuna, sakona, zuzena, urruneko eskuinean. (Irud. 7.1. zk. 6).

Printza-zatia: ukiera bakuna, zuzena ertz batean (Neurriak: 13-19-5) (Irud. 7.1 zk.7).

Printza-alboko zatia, ukiera gorairtena zuzena, hedatzailea, eta ukiera ezpaldua alderantzikatua hausturaren bizkarreko erpinean (Neurriak: 22-10-9) (Irud. 7.1 zk. 8).

Printzaren hurbileko zatia: ukiera bakuna, ertze-koa, horzkatua, alderantzikatua, eskuineko alboan (Neurriak: 13-13-3,5) (Irud. 7.1 zk. 9).

Printza-zatia: ukiera gorairtena. Bi ezpaldura bipolar alderantzikatuak ditu. (Neurriak: 20-7,5-6) (Irud. 7.1. zk. 10).

Printza-zatia musarraduna (Neurriak: 21-11,5-3) (Irud. 7.1 zk. 11).

Hurbileko ijelki-zatia erabil-ukierak dituen (Neurriak: 17-6-2,5) (Irud. 7.1 zk. 12).

Hurbileko ijelki-zatia erabil-ukierak dituen (Neurriak: 17-6-2,5) (Irud. 7.1 zk. 13).

Hurbileko ijelki-zatia, ustez erabil-arrastoak bi alboetan dituen (Neurriak: 29-27-6,5) (Irud. 7.1 zk. 14).

Ijelki-zatia erabil-ukierekin. (Neurriak: 35-24-5,5) (Irud. 7.1 zk. 15).

Dekortikapen-printza: ertz horzkatua, ustez igitaihortza. (Neurriak: 26,5-13,5-8,5) (Irud. 7.1 zk. 16).

Marruskak

Aztarnategi honetan 4 marruska-mota ezberdin aurkitu dira, posibleak bezala beste bi gehitu daitezkeelarik.

Marruska gilatua ijelki-zati baten urruneko muturrean. (Neurriak: 11,5-14,5-6) (Irud. 7.2 zk.1)

Marruska hatzazal-formakoa (Neurriak: 12-14-5,5) (Irud. 7.2 zk.2).

Printza gaineko marruska, gainezkatzen den ahoduna (Neurriak: 17,5-19-5) (Irud. 7.2 zk.3).


Mikromarruska gilatu subzirkularra bizkar-aurpegi osoan ukitua eta oinaldean hautsia (Neurriak: 14,5-13-6) (Irud. 7.2. zk.4).

Printza-zati lodia: ukiera gorairtena zuzena. Marruska bat izan daiteke (Neurriak: 33-26-17) (Irud. 7.2 zk. 5).

*Aranzadi Zientzi Elkartea. Donostia.



Irud. 7.1. Harri-industria (ukipendun printza eta ijelkiak).



Irud. 7.2. Harri-industria (marruskak, zulakaitza, zulagailua eta punta).

Printza: ukiera bakuna, alderantzikatua urruneko musarradura laburrez jarraitua, aho ganbila delentiatuz. Marruska bat izan daiteke (Neurriak 33,23-7) (Irud. 7.2 zk. 6).

Zulagailuak

Printza gainean eginiko zulagailu bat besterik ez da aurkitu (Neurriak: 17-12-4,5) (Irud. 7.2 zk. 7).

Zulakaitzak

Zulakaitz bat bakarrik aurkitu da, diedroa, dekortikapen-printza gainean egina, eta ukiera erdi-

malkartsua alboko ertzetako batean duena (Neurriak: 27-14-7) (Irud. 7.2. zk. 8).

Puntak

Ezkerretara bizkar kurbatudun punta, oinaldean hautsia, ukiera malkartsu osagarria urruneko zatia- ren eskuinean eta horzkadura irregularrak, seguras- ki erabileragatikoak eskuineko ertzean (Neurriak: 23,5-9,5-4) (Irud. 7.2 zk. 9).

Beste batzuk

Ezpalduradun alea (Neurriak: 29-21,7,5) (Irud. 7.2 zk. 10)

Baita ere lau dronda motako fusil baten harri zati bat aurkitu zen.

Euskal Herriko Harrespiletan egin diren indusketa arkeologikoetan agertutako materialaren txirotasunak Mulisko Gainean ere eskasak diren materialekin parekatzea zaila egiten du.

Iadanik esan dugu ez dela zeramika zatirik aurkitu, baina honi buruz azpimarragarria da gaur arte hauek ez direla ugariak monumentu hauetan.

J. Blot-ek Ipar Euskadin berriki eginiko indusketatik metalki-ale bakar batzuk aurkitu ditu, Oianle-

ku I-ean 1976ko indusketan zehar bezala. Mulisko Gaineko multzoan material honetaz eginiko tresnarik ez da idoro.

Suharriak berriz, industutako harrespiletako batzutan jaso dira, baina ez ugari. Gure kasuan, indusketa-lanak hartu duten hedadurari esker, haundiagoa izan da lortu den suharri-kopurua, nahiz tresnena txikia izan. Hauen artean ugariak marruskak dira.

Azkenik azpimarragarria da multzo megalitikoan aurkitutako suharri gehienak oso txikiak izatea.

VIII. Egiturak

X. PEÑALVER

Multzo megalitiko hau osatzen duten monumentu ezberdinen indusketak lehen ezkutuan zeuden mota ezberdinetako egiturak ager araztea ahalezko egin du.

Landare-estalkia kendu ondoren, eta industeko egin diren azal konbentzionaletan zehar, hareharri horiz osaturiko anderakuntza-zorua azaleratu arte, nahiz peristalitoak nahiz monumentu hauen barne edo kanpo-egiturak agertzen joan dira. Halaber, hor ezarriak zeuden ikatzen banaketa-era determinatu ahal izan da.

Zista eta bera inguratzen duen tumuluan egin diren lanak datu-sail bat eman digute eta orain xehe-tasun guztian deskribatuko ditugu.

Harrespil 1.a

Harrespil honetan, bertako hareharri horizko anderakuntza-zoruaren gainean ezartzen dira hareharri gorritzko lekukoak eta mota berdineko harriz daude kaltzatuak.

Monumentu honen barnealdeari dagokionean, landare-estalkia kendu ondoren, eta 2. eta 3. azaletan, ia monumentuaren oinaldera iritsi arte, lekukoak mota berdineko harri ugari, gehienak angeluarrak, aurkitu dira M aldean, batez ere Ñ5, Ñ7, Ñ9, 07 eta 09 laukietan.

Bestalde, IM.eko muturrean ere, Q9 eta R9 laukietan, harri ugari agertzen da. Hauek hurrengo azalean desagertzen hasten dira, bertako zorua pixkanaka monumentu osora zabaldu arte.

Kimuak (ikatz-zatiak), neurritz txikiak, monumentuaren barnealdean erregulariki banatzen dira (Irud.

1.4), kontzentrazio haundiagorik duen unerik nabarmendu gabe. Aztarna hauek behe-azaletan agertzen dira (4.engoan batez ere), bertako zorutik — monumentuaren oinarria — zentimetro bakar batzutarara. Bestela, monumentu honek ez du aurkezten inolako egiturarik.

Harrespil 2.a

Monumentu honen lekukoak hareharri horiz osaturiko anderakuntza-zoruaren gain ezarriak daude, baina honetarako zangarik ireki gabe.

Bere barnealdean, 0,004 m-ko 7 azal konbentzionaletan industua, ikusi ahal izan zen sakontzen zen bezala nola neurri txikiko harriak ugaritzen zindoazen, 0,27 m-ko sakontasunean bertako-zorua, aztarnategiko beste zonaldeetakoaren ezaugarri berdinak dituen, azaleratu arte.

Lekukoak ondoan, nahiz barnealdean nahiz kanpoaldean, tamaina ertaineko harri ugari da, baina monumentuaren barnealdean ez zen inolako egiturarik agertu.

Harrespilaren barnealdeko puntu batzutan kimu-zatitxoak bildu ziren, eta ez zegoen kontzentrazio haundiagorik zuen zonalderik. Zuhaitz-ipurdien presentziak nahikoa zaildu zuen lan hau.

Harrespil 3.a

Monumentu honetako lekukoak ezartzea beste monumentuak ezberdin egin zen. Kasu honetan, harlauzak zuzenki anderakuntza-zoruaren gain apoiatu ordez, 0,22 m-ko zabalera duen zanga estu-